

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Grabatu berriak aurkitu dira Alkerdiko kobetan

*Hala iragarri du Herrera kontseilariak, Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako azterketa baten txostena ezagutu ondoren*

Asteazkena, 2016.eko abuztuak 31

Aranzadi Zientzia Elkarteak Nafarroako Gobernuaren enkarguz egindako ikerketaren azterketa batek agerian utzi du Paleolito garaiko grabatuak daudela (orain arte ezezagunak ziren) Alkerdiko kobetan. Nafarroan aurkitutako zaharrenak kalifikatu dituzte.

Hala jakinarazi du gaur goizean Kultura, Kirol eta Gazterriko kontseilari Ana Herrerak Nafarroako Gobernuaren bileraren ondoren egindako prentsaurrekoan; bertan, Foru Gobernuak Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako ikerketaren azterketako emaitzak jakin ditu. "Alkerdiko mendigunearen eta sistema karstikoaren karakterizazio"-ari buruzkoa izan da, harrobiak zuzenean kaltetutako eremua, eta haren emakida "Mármoles del Baztán" enpresak du. Txostenak dio adierazpen artistiko eta arkeologiko horiek egoteak, Foru Komunitatean aurkitutako Paleolito garaiko lehenak direnak, harrobiko jarduerarekin ez jarraitzea gomendatzen duela.

Aipatu beharra dago, gaur egun zulaketa eta leherketako lanak etenda daudela, eta meatzeko emakida-luzapena, baliogabetzeko adierazpen-prozedura batean, laster ebatziko dena. Abuztuan, enpresak Gobernuari lanei metodo berriekin berriz ekiteko asmoa erakutsi zion. Garapen Ekonomikorako, Landa Garapeneko eta Kulturako Departamentuetako arduradunekin izandako bileraren ondoren, enpresari helarazi zitzaion ez zela egokia lan horiek egikaritzea.

Aurkikuntza berriei Nafarroako Kultur Ondarearen Foru Legea aplika dakieke; hark Kultur Intereseko Ondasun izendatzen ditu "labar-arteak adierazpenak dituzten kobak, aterpeak eta tokiak". Arrazoi hori dela eta, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kultur Ondarearen Ondasunen Erregistroan inskribatu du, Kultur Intereseko Ondasun gisa eta Arkeologia Eremu kategoriarekin.